

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Yves Klein

JAKINAREN GAINEAN izanagatik, Madeirako lorearen emanak harritu nau. Eta liluratu, lilitu. Hemen ohituta gauden lorategi eta baratzeez gain, han lorentzat edozein bazter dute eder. Nonahi bada loretik eta bertako klima gozoari esker, aparteko neurrikoak, galantak hazten dira landareak zein loreak. Uhartea izanik, landaredia bitxia da; uhartea bera sumendi bat, uretatik sortzen den mendi koniko bat denez, ipar eta hego eguraldiz erabat berezi, flora are bitxiago. Honek bertakoak harrotzen ditu, lilitzen, eta landaredia axola handiko gaitzat dute.

Hemen etxearen itxurari ematen diogun garrantzia han etxe inguruko loreei ematen diote eta auzokoen arteko lore-lehia ikusgarria da.

Lorategi eta baratze botanikoak ugariak dira. Tartean "Monte Lorategi Tropikala". Hemen zuhaitz eta zuhaitz itxurako garo itzelen artean eskultura bilduma ederra dago. Pendiz batean Yves Klein artista suitzarrari eskainitako lauki erraldoia. Urdina, noski. Yves beraren omenez "International Klein Blue" deitzen den urdinekoa. Landareekin txoratuta, Oteizarekin eta Malevitxekin batera paisaien diseinuan gehien laguntzen didan artista baso tropikalean ziplo topa-



JAKOBA ERREKONDO

tzeak kilika, lehenaz gain zoratu ninduen. Bertako ardo gozoaren mozkorraren tankerakoa.

Mahatsondoa izan da Madeira izenari sona gehien eman dion landarea. XVI. mendean, dagoenerako, Europatik kolonietara bidean, han osatzen zituzten Portugalgo, Holandako... itsasontzien sotoak, bertako ardoz betetako bukoi eta pipaz. Bide luzean ardoa ez bizitzeko azukre kanaberatik (*Saccharum officinarum*) destilatutako alkohola

eransten zitzaion. Itsasoan berri, etengabeko dantza eta

berealdiko beroaldiak. Alkohola, dantza eta bero... zer nolako hiruko uztarria. Eta ustekabeen izugarriko ardo ona sortu zuten. Itsasontzietan ardoa ontzea garestiegi eta orain upategi beroetan, eguzkitan ontzen dute. Mokofinen ardo goxoa eta gozozaleen ardo fina.

Olatuen, behe lainoen, lanbroen, ganduen eta terralen ttanttek ziprizontzen dituzten mahatsondoak pendiz beldugarrietan aitzurtutako terrazatan bizi dira. Mila metrotik gorako mendietatik itsasora jaisten diren zurubi sinesgaitzetan. Hantxe eserita, euskal kortsario, pirata eta kolonoak erraz ikusten dira.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.



ALKARTASUNA
Usurbilgo Baserriaren Kooperatiba
Ugarte Industrialdea 12 Usurbil 20170 Gipuzkoa

Elikagai ekologikoak •
Usurbilgo baserrietako produktuak •
Sagardogintzarako tresneria •
Tratamendu naturalak •
Onttoen haziak... •
Banaketa zerbitzua •

DENDAREN ORDUTEGIA
Astelohenetik-Ostiralera: 9tatik-13tara eta 16tatik-19.30tara
Larunbatetan: 9tatik-13tara

Tel/Fax.: 943 36 11 14
www.alkartasunausurbil.com • alkartasuna@usurbil.com